Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juana Joxepa Lete Iribecampos

Bergara, Gipuzkoa (1903-1992)



Aurkibidea

Biografia



Elosuko Norde-auzoko Egizabal baserrian jaioa 1903an eta auzo bereko Narbaiza Azpikoan bizi izandakoa.

Zintak

BER-063

- **Proiektua**: Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data**:
- **Iraupena**: 94 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Bergarako Udala

Pasarteak

1. Elosu auzoaren banaketa

- **Erref**: BER-063/001
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Toponimia. Elosuko auzoaren banaketa. Mugarriak. Nordea (norde-bazterra). Baserri izenak. Elizaldea. Errekaldea. Mendiak.

Transkripzioa
- Behin Kortan pasau ezkero azkoittiarra, Aizpurutxo diferentia... Hemen danien, ixa barrixo bakoitzien diferente eitten da.
- Zela... zela dao zatittuta edo zela... zuek zela zatitzen dozue Elosu? Bentatik honutz...
- Bentatik honutz.
- ... Nordia esaten jako, ezta, horri?
- Bai, honi Nordia.
- Gero, Elizaldetik...
- Horrek hortxe dauka mugarrixa [...].
- Mugarrixak be badazka honek?
- Mugarrixa be badauka horrek, Elizaldien dao mugarrixa.
- A, bai?
- Bai, hortxe dao [mugarri...].
- Ene! Eta Elizaldetik zereaiño izango da, ezta...
- Elizaldetik hartzen da: Bega, Azkoittikua da, eta handik haruzkuek. Aostondo be Azkoittikua da.
- Azkoitti partekua?
- Bai.
- Ta zera-ta... Elizaldetik Amentzela, Elormendi, Lutxurdio ta horrek?
- Amenzela, Elormendi... Horrek danak Bergarakuek.
- Bergarakuak?
- Eta Etxeberri be Bergarakua da.
- Eta Ujaldia zeri, ze zatiri esaten jako?
- Horritxi. Elormendi hiru... hiru [Elormendi...] esaten jate horrei sarrittan: Amenzela, Elormendi Azpikua ta Elormendi Gaiñekua. Horrek egongo dia. Ta, ostian, zera, Elizaldia.

- Elizaldia…
- Bai.
- Elizaldia, bueno, Elizaldia…
- Elizaldian [be, ba]…
- Ixaun eta…
- Sankristaua…
- Sakristaukua, ezta.?
- Abaderik ez dao oin ta…
- Eta Lutxurdio eta Kortabarri nun sartzen dia? Ujaldian horrek´e?
- Ez, horrek Errekaldia esaten jakue horrei.
- Errekaldia. Joe, oseake, makiña bat zati dao, ezta?
- Bai, bai, bai. Hau Nordia.
- Nordia… Ta Nordian be bi zati dare, ezta? Norde Baztarra…
- Bai, hori bai. [Honek] be errekiak erabagitzen dau.
- Errekiak erabagitzen dau…
- […] baillaratxuak darenak…
- Bai. Hau… Elusuko bezelako auzo bat… Bost zati edo, behintzet. Eta gero Azkoitti aldia zer da, dana da Azkoitti aldia?
- Etxosta-mendixa hemendikaldia.
- Etxosta-mendixa noraiño?
- Hemen Kortatik harutz sartzen die hurrengo etxiek.
- Añei hurrengo etxia…
- Añei. Bueno, Añei hemengue da.
- Añei Elusukua?
- Añei Elusukue da. Baiña gero zeretik, goiko kamiñotik sartzen dia harutz, ba, lehenengo egongo da Androndei.
- Androndei…
- Ta Otolak, Etxosta goixen, […] Eizal ta Eizaltxo, Korteta, Goenatxo…
- Horrek danak Etxosta-mendikuak?
- Zeler. Horrek danok sartuko dia Etxosta-mendira. Zelertxo, Goenaga…
- Eta Añei da azkenengo basarrixa Elusuko partekua zerera…?
- Hemengua bai. Bai.
- Eta Azkoitti partia… Zela esaten jako, Azkoitti partia esaten dotsazue horri? Añei, Korta, Bega ta…
- Azkoiti auzua.
- Azkoitti auzua?
- Azkoitti hauzua hori.
- Ta hor sartzen dia: Aitzerra, Bolintxo be sartuko da hor…?
- Baitta. Itxasakorta…
- Itxasakorta.
- Añei.
- Añei.
- Korta.
- Korta ta zera?
- Aitzerra.
- Aitzerra ta Bega izango da, ezta?
- Ta Bega, bai.
- Aostondo be bai hor?
- Ta Aostondo´re hor […].
- Azkoitti auzuan…
- Bai.

2. Auzoa: baserriak; toponimia

- **Erref**: BER-063/002

- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:06:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Euskara desberdina auzoan bertan. Baserri izenak. Elosu auzoaren banaketa. Mugarriak. Toponimia.

Transkripzioa
- Ta diferentzia hamendik Azkoitti auzora hizkeran badao, ezta, diferentzia?
- Badao. Ene! Horrek Azkoitti aldera eitten dabe.
- Azkoitti aldera erabat. Bueno, erabat edo ixa dana, behintzat.
- Hau... hau eskastzat jotzen dabe hemengo hizkuntzia.
- Eskastzat?
- Bai. Hau ez dakit, ba, nik ijitto modukue dan edo ze... Hau eskasa. [Hortara], hor, behintzet, Azkoitti... zer gehixao eukitzen dabe alde hortakuek. Hamen Begako Maria, Elgoibartik etorrittakue da baiña dana [azkoittiartu] hizkeria eitten dau harek.
- A bai, e?
- Bai. Oseake, jarri zan orduan horra.
- Bai. Bai, bai. Horixe. Horrek be [erok] hona etorri aurretik kriada Bentan bost urte-edo ez dakit ze ein zittuen...
- Benta ta zera, Bega, por ejenplo, nahiz ta oso gertu egon, Bentatik zerera ya asko aldatzen da, ezta, Begara, hizkeria?
- Diferentia, hoixe, bai.
- Ta metruen aldia dao, ez?
- Bai, bai, ez dao alde haundirik. [...]
- Eta Bega ya Azkoittiko zera da ala Bergarako...?
- Ez, ez, mugarrixa... Hor zerian dao, Santutxun dao mugarrixa bat.
- Santutxuan dao?
- Ta bestia Elizaldien.
- Elizaldian... Ixaun Bergarakua izango da...
- Bai, Bergarakua da.
- Ta Sakristaua?
- Baitta.
- Baitta?
- Bai.
- Zu ez akordatzia... Bueno, oin akaso haura nik ez dakit egongo dan... han badao, ba, kamiñuz azpikaldera soruak-eta Ixaunen?
- Kamiñuz azpikaldera?
- Kamiñuz azpikaldera.
- Ba, soruak lehen izengo zien, oin ez dao sororik.
- Bai, bai, baiña behintzat itxitturia.
- Bai.
- Ta itxitta [...] bueltatzen dan kontran bertantxe dao mugarrixa. Ta han lehen zan Bolintxo aldera bidia. Jendia [...] ez danakin ibiltteko modukua ez, baiña jendia elizan atzera-aurrera ta ibiltteko ta bidia zan. [Lizar-gaiña] esaten jako, ba, han zerien, aillegatzen garanien, ezkerrera...
- Elizaldian?
- Elizaldian.
- Bai.

- Ba, hantxe kontran dao.
- A! Han dao mugarrixa?
- Hantxe dao mugarrixa.
- Eta... Baiña Begako han... Edo... Begakua, nik ostera... Ixaungo handikalderako zelaixa-ta harek danak Bergara partia izango dia, baiña, ezta? Terreno... Begako terrenuak... Edo...Ixaungo terrenuak danak dare Bergara partian?
- Dan-danak ez dia egongo seguruao edo... Nik ez dakit. Horrek... hemen kamiñuz azpikaldera daren soro lau horrek nik ez dakit izango dien...
- Baiña hala egongo dia, bestela kontribuziñua batzuna baten ta beste batzuna beste baten pagatzen ez dia ibiliko...
- Hala egongo dia, hala egongo dia, bai.
- Eta...
- Santutxutik Elizaldera bastante... Harek zuzenian jun ezkero behetik geratzen diela emoten dabe soro harek. Santutxu han azpikaldien bertantxe dao mugarrixa: Bergara ta Azkoitti.
- Labia ta honek danok Bergara izango dia...
- Bu, horrek danok.
- Eta zera... Amentzelatik [...] nora esan dozu? Aizpurutxora?
- Amentzelatik Aizpurutxora.
- Amentzela ta horrek nora pertenezitzen dia?
- Amentzelakuek Bergarara.
- Bergarara?
- Bai.
- Elormendixak be bai?
- Baitta.
- Bixak?
- Baitta. Bergarara.
- Lutxurdio?
- Bergara. Etxeberri badakizu nun dauen han [...] behera?
- Bai, bai.
- Harek Bergarakuek dia.
- Eta Kortabarrixak eta danak dia Bergara partia?
- Danak dia Bergarakuek. Eta...
- Oseake, hor Bergarako partia ixa Aizpurutxoraiño bertaraiño sartzen da orduan...
- Aizpurutxon —esaten dabe— kamiñuz gaiñekaldetik dao etxe bat ta bestia azpikaldetik. Dare... Goiko Bentia esaten jako. Ta han esaten dabe mugarrixa bertan dauela, ta goiko partia dauela Bergara partien. Ta hor saso´ baten nik ez dakit zela ibiltten zien batien multia zaukela ta gero ein zeben, ba...
- Plazan be ez dabe, ba, esaten, plazan mugarrixa edo... plazan daola mugarrixa entzunda nao ni...
- Hemen?
- Ez, Aizpurutxon.
- Ez dakit.

3. Euskararen aldaera desberdinak Elosun

- **Erref**: BER-063/004
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:08:51. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Euskara Elosuko norde aldean. Auzoen arteko desberdintasunak. Desberdintasun gehien Elosuko bentaren alde batera eta bestera.

Transkripzioa
- Hamen Nordian danian eingo da, ezta, hizketan antzera?
- Bai, hamen igual samar danian Norde parte honetan. Baiña gu... Ta ixa gehixen ezautzen da hizkeran nungua edo... zein nungua dan, hemen inguru hontan bai, behintzat, euskeraz eitten [dabena].
- Eta Elizaldetik Azkoitti auzora´re aldatzen da?
- Horrek antzera, Azkoitti auzua ta Elizaldia antzera horrek. Ta baitta Ujaldia ´re. Ujaldian oin ez dao jente asko, baiña... Ujaldia´re tarte hortakue da. Hamen zerak eitten dau hau: Elusuko Bentia horrutz ta honutz eitten dau diferentzia gehixen.
- Diferentzia gehixen, ezta?
- Bai.

4. Antzinako bizimodua baserrian. Umetan baserria zelakoa zen

- **Erref**: BER-063/006
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:11:27. **Bukatu**: 00:12:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Umetako kontuak. Aldaketa handiak urte guzti hauetan. Bizimodua lasaiagoa zen. Jatekoa.

Transkripzioa
- Ze... ze akordu daukazu zure ume...?
- Gu... larogei urten badakizu zenbat diferenzia ein dan?
- Orduan zela zan orduan bizimodua? Ze...?
- Orduan bizimodua gaur baiño trankillaua zan. Gaur beste bildur ta gaur beste zer ez giñuan pasatzen orduan ez. Oin baiño trankillao [ibiltzen] zan orduan jentia. Artua ta esnia ta babak behintzat ez zien falta izeten ta. Sagarra zanien ta... Ostienguek, barriz, tokatzen zian moduan. Baiña orduan ondo ibiltzen zan [hala be].

5. Umetako kontuak: eskola, jaunartzea, baserriko lanak

- **Erref**: BER-063/009
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:19:55. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ume kontuak. Eskola. Jaunartze txikia eta handia. Umetatik ganaduzain. 12 urterekin Arabara joan zen.

Transkripzioa
- Bueno eta lehen esan douna: ume-denborak edo ze... zela izeten zan zuen ume-denboria? Eskolarik-eta hartu ziñuen?
- Eskolia bai, zazpi urte ingurukin. Nik goguen daukat oindio zazpi urtekin komuniua itten zan, komunio txikixa; hamarrekin komunio haundixa. Ta Segunda [nuan] nik aizta zaharraua —Elgetan hil zan— ta harekin, artian nik elizara [mezaik]... biderik ez nekixan, e! Bueno, behintzat konpezionarixue nun zeuen ta zela erakutsi [osten] goguen dauket nik oindio harek. Zazpi urtekin komuniua eitteko jun eliza´ ta, ba, eliz barrenien konfesionarixuek han zien ta “Hortxe, hortxe konfesatzen dittun”. Neri zela erakutsi [osten] harek ondio goguan daukat nik haura. Ta [hartaikuan], bueno, elizara jun be ez giñan ingo gu. Elizara juteko erroparik ba al giñun, ba, guk artian? Tapau ingo giñan justu-justuan ta ostian ibili. Ze, ba, gaur bezela?
- Ta ya txiki-txikittatik hasiko ziñazien lanian, ez?
- Bai, biheko! Hoixe!
- Ganau zain ta...
- Ganau zaiñan? Hoixe! Biheko! Ni hamahiru urtekin Araban egon nitzen. Hamahiru... Hamar urtekin jun ta hamahirukin Araban basarrixan egon nitzan, e! Ta...
- Ze partetan egon ziñan?
- [Puerta de Ali], ez dakit dakizun, han zeretik, Vittorixatik harutz zer aldera, Miranda aldera.
- Entzunda daukat, baiña ez dakit nun daon.
- Ta gaur esan dau San Prudentzio eguna gaur, e! Gaur ala atzo?
- Atzo.
- Atzo. Atzo. [Honei] Loiolari entzun [jauat] zerien, Arabako Armentiako [semia] zala haura, ta ni egon nitzan tokitik holaxe aurrian zeuan Armentia. Horixe akordauta egon naiz neu.
- Ta zela jun ziñanik-eta orduan akordatzen zara?
- Bai, akordauko ez naiz, ba?

6. Gaztetan erdara ikastera Arabara joaten ziren

- **Erref**: BER-063/013
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:33:59. **Bukatu**: 00:34:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Arabara zertara joaten zen. Mutilak soldadutzara joan aurretik erdara pixka bat ikastera joaten ziren.

7. Lan-baldintzak

- **Erref**: BER-063/018
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Lan ordutegia. Larunbatetan ere lan egiten zen.

8. Erromeriak Elosu eta Osintxu inguruan

- **Erref**: BER-063/019
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:44:03. **Bukatu**: 00:46:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Osintxuko eta Elosuko erromeriak ederrak izaten ziren. Arropak. Osintxuko kontu zaharrak: kofradia eguna.

Transkripzioa
- Osintxun Elusun aldian erromerixa edarra eitten zan. Ez geunkanez artien...
- Eta zapatua [einda] etxera, Eizalera, etortzen ziñan ala behian geratzen ziñan?
- Giro ona zanian edo eguna zelakua zeuan. Sei t´erdietan illunduta bazeuan, bertan geratu.
- Ta udan baldin bazan, uda partian, Eizalera?
- Hoixe.
- Ta erromerixan-ta bertan [gelditzen ziñen]?
- Bai, hoixe. San Isidro eguna lehen lana eitten zan ta Osintxu... edo... Plazentziatik etortzen zien, ba, lana einddakuek. San Isidrotan eguna luzia. Ta gogun dauket oinddio, harek garbittu ta ezerre itteke ta guk [erabiltzen] giñuzen, ba, txanbra zurixek edo, gonie ta txanbrie zan ordukua. Ta erazten giñunien hurrengo egunien atzia dana beztuta. Dantza lotua ez zan izeten artian Elusun, baiña gu...
- Han bai, Osintxun bai...
- Guk juerga edarra erabiltzen giñuan... Bai.
- Ta erropa danak zikinduta, orduan?
- Bai. Plaentzitarrak etortzen zien lanetik [heldu] ta segidan Osintxura erromerixara.
- Harek asko garbittu barik erromerixara.

- Hoixe bai. Pena galantakin etorri nitzan ni atzera etxera. Osintxun zeon juergia! Oin´e bai. Osintxun beti da, beti da puskat zera...
- [...]
- Bai. Oin erromerixarik-eta ez dao ez... Hori... Gero [be] Osintxun bolalekuan kofradixa egunian-ta zan erromerixia. Baitta ezaututa nao ni... Nik ez dakit artien ibiliko nitzan han... Neska gaztiak gu Urzelaira juten giñan —[ondio] hau Urzelain aittan anaia zan, ba, Felipen-ta aitta— ta hara juten giñan gu artian goiz, artian umiak giñala. Ta ez dakit, ba, orduan zan edo baiña han [haruzkuan] bazan, ba, gora bidia?
- Bai.
- Han bidien goixen jo soiñua ta kamiñuen dantzia. Kofradixa egunian ezaututa nao ni. Artian ez [nitzan] izango zaharra igul, baiña...
- [...]
- Bai, e?

9. Baserriko bizimodua negu sasoian

- **Erref**: BER-063/027
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:53:37. **Bukatu**: 00:54:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Neguan egiten ziren lanak. Ikazkintza, egur-gertatzea, arto-ereitea, e.a. egin behar izaten ziren.

10. Neguan egin behar izaten ziren lanak

- **Erref**: BER-063/028
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:54:35. **Bukatu**: 00:55:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Negua baserrian. Abereei lastoa eta belarra ematen zitzaien jateko.

11. Garia ereitearen inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-063/029
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:55:07. **Bukatu**: 00:56:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia. Arbia.

12. Belar-ondoaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-063/030
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:56:33. **Bukatu**: 00:58:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Belar-ondoa.

13. Garo-batzea zelakoa izaten zen

- **Erref**: BER-063/034
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:59:52. **Bukatu**: 01:00:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Garo-ebatea.

14. Berrikuntzak baserrian: ur-korrontea

- **Erref**: BER-063/038
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 01:12:56. **Bukatu**: 01:17:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Bere baserrian urik ez eta ur-batzera joan behar izaten ziren. Linapotzua. Ur-korrontea.

15. Lihogintza

- **Erref**: BER-063/040
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 01:18:40. **Bukatu**: 01:19:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Lihoa (linua). Ezagutu zuen ama ardatzean lihoa egiten. Argazki bat dute.

16. Lihogintzaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-063/041
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:19:36. **Bukatu**: 01:22:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Lihoa (linua) nolakoa zen. Liho-putzua ("liñapotzua"). Prozesua. Tresnak. Lihoak lan asko zuen. Lihoa irutea.

17. Harigintza; ehunezko arropak

- **Erref**: BER-063/042
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:22:00. **Bukatu**: 01:23:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Haria egitea. Matazak. Egosi egin behar izaten ziren zuritzeko. Prozesua azaltzen du. Ehunezko arropak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-11

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com